

SOKATIRA. 25. urteurrena ospatzeko ekitaldirik garrantzitsuena izango da, bihar eta etzi



KOLDO ALDUNTZIN

Nuarbe eta Azpeitiko Udaleko ordezkariak atzoko prentsaurrekoan, Azpeitiko Loiola Hotelean.

Nuarbek gogoz antolatu du bere nazioarteko lehiaketa

Azpeitiarrekin, Mutriku, Goierri, Getxo, Areso, Suitzako Mosnang, Irlandako Errepublikako Boley eta Ingalaterrako Oxney ariko dira

Koldo Alduntzin | **AZPEITIA**

Euskal Herrian joka daitekeen lur gaineko nazioarteko txapelketarik handienetakoa izango da bihar (17:00) eta etzi (11:00), Azpeitian (Gipuzkoa). «25. urteurrena ospatzeko modurik politena eta erakargarriena goi mailako sokatira txapelketa bat antolatzea zela iritzi genion. Dakigun kirola eginez gozatu egingo dugu gure kontrarioekin, baina, era berean, gure la-

gunekin indarrak neurtuko ditugu», azaldu zuen atzo eguerdiko aurkezpenean Luismari Gurrutxaga Nuarbeko kideak.

Nuarbetarrak, taldea sortu zeneko 25. urteurrena ari dira ospatzen, eta «azkeneko ekitaldi potoloa» izango dela aitortu zuen Gurrutxagak. Lehiatz gain, ordea, badu asteburuko txapelketak beste helbururik, Gurrutxagaren arabera: «Herriarrei ere sokatiraren xarma osoa erakutsi nahi genieke. Bestal-

de, era honetako txapelketak antolatzeak onurak ekar diezazkioke euskal sokatirari, jakina baita Japoniako gertakariez geroztik TWIFen (Nazioarteko Sokatira Federazioa) jarrerak aztoramendua eragin diola euskal sokatirari».

Horrelako lehiaketak antolatuta, egoera «arindu» egin daitekeela nabarmendu zuen nuarbetarrak. Izan ere, atzerriarrek lortu diren harremanei eutsita, «begirune handiagoa»

LUISMARI GURRUTXAGA

Nuarbeko ordezkaria

«25. urteurrena ospatzeko modurik politena zela iritzi genion, herriarrei sokatiraren xarma osoa erakutsita»

«Era honetako lehiaketak antolatzeak onurak ekar diezazkioke euskal sokatirari, eta TWIFekiko egoera arindu»

izan diezaioke TWIFek euskal sokatirari.

Guztira zortzi klub lehian

Iaz Suitzan jokatu zen Europako Txapelketa, eta han egin zituzten lehen urratsak taldeak gonbidatzeko. Urtarrilean, Euskadiko Federazioa bitartekari zela, TWIFi baimena eskatu zioten txapelketa antolatze-ko. Handik aitzin, beste gonbidapen batzuk igorri zituzten, eta bost taldek onartu zuten. Jakina da, ordea, Stans Oberdorfek (Suitza) eta Felton Ecclesek (Ingalaterra) uko egin diotela.

Beraz, Euskal Herriko Mutriku, Nuarbe, Goierri, Getxo eta Aresorekin batera, Mosnang (Suitza), Boley (Irlandako Errepublikak eta Oxney Vines Cross (Ingalaterra) ariko dira lehian. Bihar 600 kiloko lehia izango dute, eta etzi 640koa. Biak ala biak ligaxka eran jokatu dira lehenik, eta gero finalak.

Loiola hotelaren atzealdeko zelaian jokatu da, eta, antolatzailen arabera, 18.000 euroko aurrekontua izango du.

TXIRRINDULARITZA

Victor Hugo Peña irabazi du erlojupekoa Holandan, eta lider jarri da

Agentziak | **ALMELO**

Kolonbiako Victor Hugo Peña da Holandako Itzuliko lider berria, atzo arratsan 19 kilometroko erlojupekoa, hirugarren etapako bigarren sektorea, irabazi ostean. US Postalekoak ozta-ozta lortu zuen lehen postua, segundo bateko aldea kendu baitzion Bartko alemaniarri (Telekom). Etapa garaipena eta lidergoa lortu zuen Peña, itzulia bukatzeko bi etapa geratzen direla. Goizean lehen sektorea jokatu zen, eta esprintean Petacchi italiarra (Fassa Bortolo) nagusitu zen.

Sassone Limousinen, Nardello Bernocchi Kopan

Limousingo Tourreko hirugarren etapen Robert Sassone frantziarra (Cofidis) izan zen garailea, ihesaldi bat burutu, aurreko bi egunen antzera. Aitor Silloniz bizkaitarra ere (Euskaltel-Euskadi) ihesaldi onean sartu zen, baina laugarren postuan helmugaratu zen. Halgandek eutsi zion lidergoari.

Bernocchi Kopan, bestalde, Nardello italiarra (Mapei) nagusitu zen. Bortolami izan zen bigarrena, eta Tossatto hirugarrena.

HOLANDAKO ITZULIA LEHEN SEKTOREA

1. A. Petacchi (F. Bortolo)	1.31.29
2. Erik Zabel (Telekom)	d. b.
3. S. Teutenberg (Phonak)	d. b.

BIGARREN SEKTOREA

1. V. H. Peña (US Postal)	21.23
2. R. Bartko (Telekom)	1era
3. M. Wauters (Rabobank)	2ra

SAILKAPEN NAGUSIA

1. V. H. Peña (US Postal)	10.45.49
2. R. Bartko (Telekom)	5era
3. M. Wauters (Rabobank)	6ra

LIMOUSINGO TOURRA HIRUGARREN ETAPA

1. R. Sassone (Cofidis)	4.36.23
2. F. Mainguenaud (Bonjour)	7ra
3. M. Elminger (Phonak)	9ra

SAILKAPEN NAGUSIA

1. P. Halgand (J. Delatour)	12.40.56
2. G. Trentin (Cofidis)	2ra
3. L. Turpin (Ag2r)	35era

Euskariansek orain arteko erronkarik handiena ukanen du Eskoziaren aurka, gaur

Koldo Alduntzin | **DONOSTIA**

Gaur ekingo diote Euskariansek eta Eskoziak elkarren arteko norgehiagoka bikoitzari, Gernikako Urbietako zelaian (18:30); bigarrena Donibane Lohizunen jokatu dute, etzi (17:30). Eskoziak Euskariansen kontra jokatzera etorri da soilik. Oraingoa 19 urtez azpikoa izango da, baina heldu den urteko udaberrian Senior Mailakoen arteko lehia izango da.

Hori dela eta, Eskoziako Federazioko hainbat ordezkari

etorri da Euskal Herrira; hain justu, Euskariansen ahalmena gertutik jakiteko. Eskoziarrak atzo eguerdian heldu ziren Sondikako aireportura, eta arratsaldean entrenamendu txiki bat egin nahi izan zuten, kosta ahalakosta.

Eskoziak bederatzigarren sailkatu zen azken Munduko Junior Txapelketan, joan zen maiatzan. Zeelanda Berria izan zen txapeladuna, Gales mendean hartuta. Europarren artean, Gales, Irlanda, Frantzia eta Italia izan ziren hobeak.



KOLDO ALDUNTZIN

Euskalianseko (zuriz) aitzin-jokalariak Marokoren aurka, Baionan.

Euskariansi dagokionez, gaur goizean entrenatuko dira. Jokalari aipagarri batzuk: Davila (Hernani), Feijoo (Bera-Bera),

Poeys (Miarritze)Labeyrie (Baiona) eta Otazoa (Gernika). Eskoziak eta Euskariansek joko alaia dute gustuko.

ERRUGBIA. Lagunarteko lehen partida dute Gernikan (18:30), eta etzi Donibane Lohizunen ariko dira